

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 14a / 584. zenbakia

**LASAI EGON...
TXOTXONGILO
ASKO IZANGO
GARA!**



TXOTXONGILOEN MOSTRA
Nazioarteko talderik onenak Bergaran

DANTZAK: HAUREN EUSKAL JAIA DOMEKAN/5 • FUTBOLA: BERGARA-MONDRA DERBIA ZAPATUAN/11



BERGARA-MONDRA

Bergararren eta arrasatearren arteko derbia GOITB-n

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

BERGARA-MONDRA

Bergarako laguntzaileak: Pol-Pol eta Nahikari Taberna
Arrasateko laguntzaileak: Basati, Bengoa, Branka, Ederra, Ezkiña,
Hostal Musakola, Iamai Kafe Antzokia, Iluntz, Irati, Iturriotz, Itzala,
Lora, Monte, Okoretegi, Zirola.

Zapatuan, maiatzaren 15ean
Agorrosin futbol zelaian, 17:00etan.
19:30ean GOITBn

ATREBENTZIAEZPADA/ Umeen Euskal Jaia domekan: gustuko dituzu euskal dantzak?



LOREA LOPEZ
36 urte

Bai, gustatzen zaizkit, batez ere ikusteko. Gazteagotan erromerietan dantza egiten nuen eta garai batean txistua ere jotakoa naiz. Baina orain ez dut uste ikasten hasiko nintzatekeenik.



SONSOLES MORENO
60 urte

Bai. Gainera, gure semeak ere umetan Angiozarko dantza taldean ibili ziren. Niri ere asko gustatzen zait erromerietan dantza egitea, sekula ikasi ez dudaren.




FERNANDO CARASATORRE
39 urte

Bai. Nik ez dut dantza egiten, baina ikustea gustatzen zait. Inoiz ikastea ere pentsatu dut, baina ez daukat denborarik. Beharbada gure umek ikasiko dute noizbait.



ITZIAR MUNIATEGI
33 urte

Bai, gustuko dut, nahiz eta nik sekula ez dudan talde batean dantza egin, eta orain ez daukat ikasteko denborarik. Erromerietan ere aspaldi ez dut dantzan jardun.



GERMAN MANZANAL
68 urte

Bai, asko gustatzen zait dantzariak ikustea. Baina nik ez dut aureskua egiten ere ikasi, beraz, erromerietan dantzatzearekin nahikoa dut. Gainera, nori ez zaio gustatzen ongi pasatzea.



MARKEL LOPEZ
12 urte

Bai, pixka bat bai, nahiko politak dira. Nik ez dut dantza egiten, baina nire lagunak bai, eta ni ahal dudanean ikustera ere joaten naiz. Erromerietan ez dut dantza egiten lotsagatik.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GURPILAK ZULATUTA Eguaztenetik eguenera bitarteko gauean Martoko eta Zubiaurre artean aparkatutako autoei gurpilak zulatu zizkieten ezezagun batzuek. Udaltzainen arabera 14 auto izan ziren eta gehienei atzeko bi gurpiletan egin zizkieten zuloak. Eguen goizean zenbait gidarik autoa erretiratu zuen, baina ordezko gurpil bakarra edukita denei ez zitzaion posible izan. /I.A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /7

Haur masaje ikastaroa

Haur masaje ikastaroa ematen dabilen Nerea Mendizabal psikopedagogoari elkarrizketa.

ZAHARRAK /14

87 urtekoei omenaldia

Aurten 87 urte egiten dituzten bergararrak omenduko dituzte datorren maiatzaren 23an.

KULTURA /15

Txapa jaiia zapatuan

Txapa jaiia izango da zapatuan gaztetxean. Azoka eta kontzertua izango dira, besteak beste.

ASTEKODATUA

500

DANTZARI DOMEKAKO EUSKAL JAIAN

Haurren Euskal Jaiaren 31. ekitaldia ospatuko da domekan, maiatzaren 16an, gure herrian. Guztira, 500 bat dantzari ibiliko dira goiz eta arratsaldez herriko kaleak alaitzen.

BESTEKEESANA

“ Jaurilaritzan aldaketak formetan antzeman ditugu. Garairekin izan genuen bileran ez bezala, Azkarateri notari gorenena eman beharko genioke diplomazia politikoari dagokionean. Gainerakoa emaitza hutsa da. Hau da, xakea dagokion lekuan gera dadin eta kirol federazioen gaineko dekretuaren inguruan bide horretan aurrerapausorik eman den galdetuz gero, horretan ez da urrats txikiarik egin. Orain onartu dute proposamenak ez duela dekretu formarik, zirriborroa dela, eta, ondorioz, aldaketak egin dakizkiokeela jasotzen dituzten helegite eta zuzenketa eskaerak aztertu eta gero. Funtsean, ordea, ez dute gure kezka uxatu, eta, ondorioz areagotu egin da gure urduritasuna”.
MIGUEL ANGEL MUELA / Euskadiko Xake Federazioko lehendakaria 'Berria' /03-05-06

BERAIEKDIÑO/ Maite Aristegi



Politika egiteko modua

Ez didazue esango egungo politika egiteko moduagatik kezkatuta ez zaudetenik! “Demokrazia” hitzetik hortzera, baina erabakitzeke orduan gezurra eta hipokresia nagusi: gauza bat agindu eta kontrakoa egin, denoi aurpegira barre eginaz eta etorkizuna zeharo baldintzatuz.

Eta egunotan gure bailaran dabilzkgun bi gai baino ez ditut aipatuko, baserri munduari eragiten diotenak biak. Mankomunitateak eta gure herrietako alkateek Oñatiko hiltegia ixtea adostu (edo erdi adostu) dute, eta afektatuen presioek eraginda bi hilabeteko epea baino ez dute eman hango eraikuntza eta lur sailekin zer egin proposatzeko. Ez al da lotsagarria, bost urtetik gora Mankomunitatearen atzetik ibili ostean, elkarrizketarik lortu barik, derrepentean inorekin kontatzeko, kostuak benetan aztertu gabe, plangintza barik, zentzuzko arrazoirik ez alternatibarik emateke,

Udalek baserriarrei ematen dieten ia zerbitzu bakarra di-da kentzea? Punta-puntako bizi maila izanik, dirutzak mugitzen dituen bailaran, baserriar eta harakinentzako ezinbesteko zerbitzua kanpora, zergatik eta calderilla bategatik...

Eta zer esan Gasteizerako autopista egitean Eskoriatzan hartu nahi diren lur-sail berrietaz? Lehengo triskantzak gutxi balira bezala, dozenaka hektarea gehiago okupatzeko milaka orritako txostena aurkeztu eta afektatuei alegazioak jartzeko

hilabete baino ez eman, tartean Aste Santua dela... Besteak beste, baserri bizi diren bost gazteren etorkizuna kolokan (bailaran 70 baino ez gara, gehienak jubilatzeke zain). Gero ahoa beteko zaie baserria eutsi beharraz, ingurugiroaren baloreez, Agenda 21az..., eta bitartean, hilzorian dagoen zezenari azken ezpatakadak ematen, gelditzen diren lur apurrak xahutzen. Politiko hauek guk merezitakoak ote?

“Gure herrietako alkateek eta Mankomunitateak Oñatiko hiltegia ixtea adostu (edo erdi adostu) dute”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldea,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 15**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 16**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 17**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 18**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 19**
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- EGUENA, 20**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda)..... 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 53 47 20
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emaleak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kirolegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | |
| Elosu
Domekak: 10:30. | |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1927AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 22an Zumelaga jatetxean, 14:00etan. Izenematea (15 euro) Euskadiko Kutxan, hilaren 17ra arte.

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA
1966an jaiotakoek afaria ekainaren 19an Sirimiri jatetxean. Izenematea (10 euro) Ariznoa tabernan.

GORLA ALPINOREN OHARRA
Domekan, hilaren 16an, Jon Ezpeleta, Vicente Moñux eta Moises Manso, Gorla Alpinoko bazkide zirenen aldeko meza izango da Elosuko San Andres parrokian, 11:45ean. Domekako meza ordu horretan izango da, 11:00etan beharrean.

ODOL ATERATZEA
Odol ateratzea hilaren 26an, Seminarioan, 18:30ean hasita.

MUSIKA ESKOLA
Musika Eskolan matrikula egiteko epea ekainera arte dago zabalik. 943 76 57 80.

IPINTZA INSTITUTUA
Ipintza institutuko gurasoen elkarteak ez ohiko batzarra egingo du eguaztenez, hilaren 19an, 18:30ean lehen deialdian eta 19:00etan bigarren deialdian. DBHko eta DBHoko gurasoak deituta daude.

JARDUNEN AGENDA

BI IRTEERA
Jarduneko gaztetxoek irteera egingo dute maiatzaren 23an, Gernika eta Lekeitio aldera. Txiskrilabi taldekoak, berriz, Debara joango dira egun berean. Bietan ere, izenematea astelehenera arte zabalik, Jardunen. Argibideak 943 76 98 19 zembakian.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espojoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Eli Galdos diputatu nagusiaren bisita

Eli Galdos diputatu nagusia eta Anton Arbulu Hirigintza diputatu udaletxean egiten ziharduten obrak ikusten izan ziren 1994ko maiatzaren 18an. Berritze lanek 657 milioi pezeta inguruko aurrekontua zeukaten, eta Diputazioa 279 milioiko dirulaguntza emateko zen.



BERTAKO BERRAK / Juan Martin Elexpuru

“Bolo-bolo”



— *Bolo-bolo dabil herrixan droga asuntuan sartuta dagona.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 9	5 °C
MAXIMOA Domeka, 9	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	50,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	12 °C	6 °C	18,6 l/m ²
Eguena, 6	12 °C	6 °C	11,7 l/m ²
Egubakoitza, 7	12 °C	6 °C	13,8 l/m ²
Zapatua, 8	15 °C	6 °C	0,2 l/m ²
Domeka, 9	16 °C	5 °C	4,7 l/m ²
Astelehena, 10	13 °C	8 °C	0,3 l/m ²
Martitzena, 11	15 °C	10 °C	1,4 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK


‘LA PASIÓN DE CRISTO’

ZUZENDARIA: MEL GIBSON. AKTOREAK: JIM CAVIEZEL, MONICA BELLUCCI.

HARIA. Jesusen bizitzaren azkeneko hamabi orduak krudelki kontatzen ditu Mel Gibsonek. Filmak polemika eragin du.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



BERGARA Margoak

KALITATEA
Engraparrietan Espainia z. 2.02.020
2 Maila

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

JAIK/Bergarako Gazte Alai eta Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako taldeak ere arituko dira

Haurren Euskal Jaiaren 31. ekitaldian 500 bat dantzari batuko dira domekan

EDU MENDIBIL

Haurren Euskal Jaia ospatuko da domekan, hilaren 16an, Bergaran. Aurtengoa jaiaren 31. Ekitaldia izango da. Guztira, 500 bat dantzari —herrikoak tartean— arituko dira domekan, goiz eta arratsalde, herriko txoko guztiak alaitzen.

Azpeitiko Itsasi, Urretxuko Lurra, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu taldeak, Antzuolako Oñarin, Oñatiko Oñatz, Altsasuko taldea eta herriko dantza taldeek hartuko dute parte domekako jaiari. Herriko dantza taldeei dagokienez, Gazte Alai dantza taldea eta Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako taldeek jardungo dute dantzan domekan. Guztira, 500 bat dantzari biltzea espero dute antolatzaileek.



San Martin plazan dantza saioak izango dira goizez eta arratsaldez.

DANTZEN ALARDEA ARRATSALDEAN

Ohikoa denez, dantzari guztiak Seminarioko patioan elkartuko dira, 10:30ean. Aurten 300 bat dantzari biltzea espero dute antolatzaileek. Jarraian, alkate eta alkatesa txikiak ongi-etorria egingo diete dantzari guztiei San Martin

plazan, 11:30ean. Ondoren, dantzari gatetxoek herriko kaleetan barrena dantzatuko dute, 11:45etik aurrera.

Arratsaldean, bazkalostean, berriro ere San Martin plazan elkartuko dira dantzariak,

17:00etan eta ordu erdi beranduago dantzen alardea egingo dute. Mutilek *Jorrai dantza*, *Txakarrankoa* eta *Banakoa* eskainiko dituzte eta neskek, aldiz, *Makil txiki*, *Esku dantza* eta *Arku dantza*. Jarraian, guztiak batera, *Iku-*

rrin dantza, *Zapatain dantza* eta *Txulalai* dantzatuko dituzte.

Domekan 150 lagun arituko dira boluntario lanetan. Laguntza eman duten elkarte eta partikularrei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek.

LABUR

Etxeko tresneria jasotzen dabil Bergarako Caritas

Hainbat familiaren etxebizitzak janzteko etxeko tresneria jasotzen dihardu Caritasek. Erabiltzeko moduan dagoen tresneria eta emateko moduan duten herritarrei parte hartzeko dei egiten zaie. Kanpainan parte hartzeko interesa dutenek Caritasek Alkabetan (Sierbetan) duen bulego- ra edo 943 76 72 77 telefono zenbakira jo dezakete. Aldez aurretik, kanpainan parte hartzen dutenei eskerrak eman nahi dizkie Caritasek.

Ekainaren 12ko erromeriari begira dantza ikastaroak

Abarka elkarteak antolatuta, Erromeria Eguna ospatuko da Bergaran datorren ekainaren 12an. Egun horri begira, Juantxo Urbieta irakaslea dantza ikastaroak ematen ari da hainbat dantzari gaztetxoren laguntzarekin.

Aipatutako ikastaroa irekiak eta doan dira. Hala, bertan parte hartzeko interesa dutenek kultura etxean edo 943 77 91 60 telefono zenbakira deituta eman dezakete izena.

Atzegi Eguna ospatuko da bihar, zapatua, Bergaran

E.M.

Atzegi elkarteak deituta, bailarako 80 bat gutxitu psikikok eta haien senideek Atzegi Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Bergaran. Guztira, 150 lagun inguruk hartuko dute parte biharko ospakizunetan. Eguerdian bazkari herrikoa egingo dute Zabalotegiko pilotalekuan. Aurretik, eguerdiko 12:00etan, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak harrera egingo die Atzegiko Jose

Luis Basoko gerenteari eta Jokin Antxia Atzegiko Debagoieneko arduradunari, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Basokok eta Antxiak elkarteak aurten egingadako lanaren berri emango diote Gallastegiri. Alkatearekin elkarriketatu ondoren, Atzegiko kideek Bergara ezagutzeko bisita gidatua egingo dute.

Atzegi Gipuzkoan adimen urritasuna duten pertsonen familiariek sortu zuten 1960an. Aurten *Arnasberritzeko ATZEGIZale bila*

kanpaina jarri dute abian, bazkide berriak lortzeko. Gaur egun 4.000 gipuzkoar dira *Atzegizale* eta elkartearen helburua da ahalik eta Atzegizale gehiago lortzea.

Bergaran, besteak beste, Txolarte aisialdi kluba du Atzegi elkarteak, Martokoko 8. zenbakiko egoitzan hain zuzen. Txolartek 50 bazkide inguru ditu eta 16 begirale boluntariok lanean dihardute adimen urritasuna dutenekin. Aste buruetan elkar-tzen dira Martokon.



Jokin Antxia Atzegiko ordezkariak Txolarteko boluntarioak saritu zituen iaz.

JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

OSASUNA/ Elkarteak buruko osasunaren gaineko sentsibilizazio kanpainari ekin dio egunotan

Debagoieneko Agifes elkarteak, gaixotasun psikikoak jasaten dituztenen alde lanean

EDU MENDIBIL

Debagoieneko Agifes elkarteak buruko osasunaren gaineko sentsibilizazio kanpainari ekin dio. Gaixo psikikoen eta haien familiarekoen elkarteak urtarrean zabaldu zuen Debagoieneko bulegoa, Irizar jauregian.

Gipuzkoako Agifes elkarteak 1985ean sortu zuten, eta buruko gaixotasunak jasaten dituzten pertsonen eta beraien familiarekoen bizitza kalitatea hobetzea du helburu. Era berean, buruko gaixotasunen gainean dagoen aurreiritziekin apurtu nahi dute, gaixoen gizarteratzea bultzatuta eta lanerako aukera izan dezaten borrokatuta.

ERREALITATE GORDINA

Agifes elkarteak emandako datuen arabera, Debagoieneko Buruko Osasun Zentroan ibarrek 1.460 lagun inguru zaintzen dituzte gaur egun. Kopuru horri, sare ofizialetik kanpo dauden gaixoak gehitu behar zaizkio. Debagoieneko Agifes elkarteak kideen ustetan, datu hauek garbi erakusten dute errealitatearen gordintasuna. Ibarrean erre-

habilitazio psikosozialerako zentro bat aldarrikatzen dute eta, era berean, erakundeen aldetik tutoretzako etxebizitzak eta etxez etxeko laguntza psikiko eta hezitzailea eskuratzea beharrezkoa ikusten dute. Oraingoz, Bergarako Udalarekin bakarrik sinatu dute akordioa, baina Debagoieneko gainerako herriekin ere sinatu nahi dituzte hitzarmenak, epe laburrean.

ATEAK ZABALIK

Esan bezala, Debagoieneko Agifes elkarteak Bergarako Irizar jauregian dauka bulegoa. Gaixoen senideei zuzendutako saioak antolatzen dituzte, hamabostean behin, Errotalde jauregian. Hala, elkartera hurbiltzeko interesa duten guztiendako ateak zabalik dituzte Barrenkaleko 33. zenbakiko lehen solairuan. Elkartearen telefono zenbakia hau duzue: 943 76 98 56. Edozein argibidetarako bergara@agifes.org posta elektronikoa ere erabil dezakezue. Donostiako bulegoko zenbakia beste hau da: 943 47 43 37.

Besteak beste, etxean gaixo psikikoren bat duten senideei aholkularitza zerbitzua eskaintzen dio Agifesez. Hilero, laugarren eguaztenean, Maite Etulain izango da Irizarko bulegoan,



Irizar jauregian, Agifeko bulegoko ateak zabalik daude elkartera hurbildu nahi duten guztiendako.

10:00etatik 14:00etara, informazioa eta bestelako argibideak ematen.

FILM EMANALDIA HILAREN 26AN

Elkarteak ezagutzera emateko asmoarekin hainbat ekitaldi anto-

latu dituzte datozen egunotarako. Maiatzaren 26an *Elling* filmaren emanaldia izango da kulturà etxean, 19:00etan, eta ekaineko bigarren asterako —eguna zehazteke daukate oraindik— eskizofreniaren inguruko hitzaldia iraga-

rri dute. Era berean, egunotan, Agifesen lanaren berri emateko triptikoak banatuko dituzte herriko hainbat tokitan. Herriko eskoletan ere sentsibilizazio kanpaina aurrera eramatea da Agifeko ordezkarien asmoa.

Asentzio eguna ospatuko dute Aritzetako San Migelen

E.M.

Aspalditik datorren ohiturari eutsiz, Asentzio eguna ospatuko dute egunean, maiatzaren 20an, Aritzetako San Migel ermitan. Urtean bi aldiz izaten da meza San Migelen, Asentzio egunean eta San Migel egunean.

Ozaetatik Aritzetako San Migel ermitaraino 2,8 kilometroko bidea dago. Errepidean gora hainbat baserri daude bide bazterretan; goi-goian Aritzeta baserria, eta ondoan Aritzetako San Migel ermita. 380 metroko altueran dago ermita. Baserriak San Migel izena zuen lehen eta ermita ere santuarekin izenarekin ezagutzen zuten. Ermitan Udalak jarritako plakan zera irakur daiteke: *Haritzetako San Migel basiliza*. Antxon Agirre Sorondok eta Koldo Lizarralde Gipuzkoako ermiten gainean idatzitako liburuan azaltzen dutenez, ermitari buruzko lehen aipamena 1050. urtekoa da. Hala ere, ez dago argi zein urtetan eraiki zuten ermita. Luis Pedro Peña Santiagok *Las ermitas de Guipuzcoa* (Txertoa argitaletxea) liburuan dioenez, frantsesen kontra-

ko gerra garaian, XIX. mendean, ia guztiz suntsitua izan zen ermita. Garai batean tenplarioen ermita zela dio Peña Santiagok aipatutako liburuan.

ONDARE IZENDAPENA

1993ko urtarrean ondare izendapena eman zion ermitari Eusko Jaurlaritzak. Hala ere, azken urteotan, Aritzeta baserrikoak bakarrik arduratu dira ermita zaintzeaz.

Margarita, Sebastian eta Tomas Mujika anai-arrebak bizi dira Aritzeta baserrian. Besteak beste, itoginak konpondu, eliza garbitu eta lore-sortak ipintzen dituzte ermitan. Orain dela hiru bat urtera arte meza izaten zen domekero ermitan, baina Uzarragako On Isidro Legorburu zena hil zenetik, urtean bitan bakarrik zabaltzen dute, Asentzio egunean eta San Migel egunean.

MEZA EGUNEAN ETA HILAREN 23AN

Mendekoste-domeka baino hamar egun lehenago ospatzen da Asentzio eguna. Beraz, egunean, maiatzaren 20an, 11:00etan meza izango da Aritzetako San Migelen. Aritzeta baserriko Migel



EDU MENDIBIL

Ermitan dagoen Migelen figura.

Mujika apaizak —gaur egun Bilbon bizi da— esango du meza. Mezaren ostean luntxa izango da bertara joandakoendako. Maiatzaren 23an ere Asentzio eguna ospatzeko meza izango da, 11:00etan. Egun horretan Txarrantxa eta Lasa jatetxeen ondorengo eringo da, 10:30ean hasita.



EDU MENDIBIL

Margarita Mujikak eta haren anaiek zaintzen dute ermita aspalditik.

ELKARRIZKETA

NEREA MENDIZABAL/PSIKOPEDAGOGO

“Haurrak mimatzea, hasieratik gurasoen babesa senti dezatela guztiz garrantzitsua da”

EDU MENDIBIL

Nerea Mendizabal psikopedagogo haur masaje ikastaroa ematen dabil Bergaran, Aranzadi Ikastolak eta Haurtxoa haurtzaindegiak antolatuta. Hamai-ka lagun ari dira ikastaroan, ume jaioberriendako masaje teknikak lantzen.

Emakumeak nagusi dira ikastaroan.

Hala da, bai. Gizon bakarra etorri da. Kosta egiten zaigu aitaren papera aktiboagoa izatea. Beharbada ikastaroaren ordutegia ez da egokiena lanean ari diren gizonendako. Dena den, emakumeek ikasitakoa gizonen ere praktikan jartzea ondo legoke. Teknika baino gehiago, aita presente dagoela estimatuko dute haurrek. Haurraren eta aitaren arteko komunikazioa hobetzeko tresna ezin hobea izan daiteke masajea.

Zer landuko duzue ikastaroan?

Ikastaroa 0-1 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Masajea emateko teknikak ikasiko ditugu, aste bakoitzean gorputzaren atal bat landuta. Aurreko astean hankekin hasi ginen, aste honetan tripa aztertu dugu, hurrengoan bularra eta besoak... Azkenerako gorputz osoko masajea zelan ematen den jakitea da helburua.

Bestalde, haurra hazten doan neurrian masajea egokitzen aztertuko dugu. Gainera, haur guztiak ez dira berdinak, batetik bestera diferentzia dezente ego-

ten dira. Kontua da haurra ahalik eta ondoen ezagutzen joatea. Horretarako nik aukeratutako hainbat ikasgai jorratuko ditugu eta gure artean komentatuko ditugu: haurrari zelan entzun, haurraren negarra, aitaren papera, ukimenaren onurak, haurren psikomotrizitatea, eta beste hainbat.

Eta zeintzuk dira gurasoak gehien kezkatzen dituzten gaiak?

Gauean haurrek ondo lo egitea eta orokorrean elikagai kontuak dira gurasoen kezka nagusiak. Bestalde, haurraren eskari-aren aurrean zelan jokatu ez dugu jakiten askotan.

Ez diegu gehiegizko arreta eskaintzen haurrei gaur egun?

Ez. Askok izaten dute kezka hori, haurraren eskariak asetzeko nahian ez ote ditugun haurrak gaizki ohituko. Eta haurrekin denbora luzea ematen dugun sentazio hori faltsua da askotan. Egia da haurrekin gaudela, baina beraiekin egoten garen momentu askotan, beste gauza batzuk egiten ari gara.

Ume asko emozionalki abandonatuta sentitzen dira, harreman falta dagoelako batik bat. Beraz, beharrezkoa da harreman hori sendotzea, haurren pertsonalitatea eraikitzeke lehen urteak klabeak izaten direlako. Ez dugu umeak gehiegi mimatzeko beldurrik izan behar. Azken baten, ume batek jasotzen duena emango du eta bere lehenbiziko urteetan amodioa, babesa eta lasaitasuna ematen badizkiogu, askoz hobeto. Haurrak baldintzarik gabe maitatua dela



“Ez dugu umeak gehiegi mimatzeko beldurrik izan behar, harremana sendotu behar da”

“Ama ez ezik, aita ere ondoan izango duela ikusi behar du haurrak”

ikusi behar du, etorkizunean berak ere sentipen bera izateko. Gaizki tratatuak izan diren haurren kasuan ikusi izan da askotan tratu txarren egileak izan direla nagusitzerakoan. Horri buelta emateko, lehen aipatu bezala, guztiz garrantzitsua da hasierako urteetan haurrak mimatzea, gurasoen babesa sentitzea.

Haurraren amarekiko lotura sendoagoa da.

Logikoa da. Azken baten, bederatzita hilabeteen barruan izan du, edoskitzeagatik eta hormonak ere gure alde ditugulako emakumeok. Aitaren hormonak harremanaren bidez aktibatzen dira, eta haurraren masa-jearekin hurbil daiteke. Aita ondoan izango duela ikusi behar du haurrak. Eta horrela, aitaren autoestima ere igo egiten da, zenbaitetan albo batera sentitzen baita haurraren lehendabiziko hilabeteetan, gehiena amaren esku egoten baita.

Haur jaioberriekin zabilzate lanean ikastaroan. Bizpahiru urte dituzten haurrekin, zer?

Ikasitako teknikak ez du adin toperik. Nagusiondako ere masaje teknikak aproposak dira hauek. Garrantzitsua zera da: ikasitakoari jarraipena ematea. Urtebete eta bost urte bitarteko haurrendako beste ikastaro batzuk antolatzeko asmoa dugu etorkizunean. Adin horietan masaje ludikoagoa eta simbolikoagoa egiteko aukera dago, masajea ematen dugun bitartean ipuinak edo bestelako jokoak landuta. Aukera zabala dago hor.



Harrera beroa egin zioten 'Panti'-ri

Herritar mardoa elkartu zen zapatu arratsaldean San Martin plazan, Xabier Oregi *Panti* preso ohia agurtzeko. *Panti* 22 urte eman ditu herri-rik kampo, bost urte erbesteran eta azken 17 urteak kartzelan. Zapatuan irten zen Murtziako espetxetik eta iluntzean iritsi zen bere jaioterrira. Dantzak eta bertsoak eskaini zizkioten plazan eta berak ere bertsoz agurtu zituen han bildutakoak. Maiatzaren 22an omenaldia egingo zaio *Panti*-ri. Afarirako txartelak, Arranon eta Pol-Polen.

LABUR

Europako hauteskundeetarako posta bidez botoa emateko aukera Batzokian

Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak aditzera eman duenez, ekainaren 13ko Europako hauteskunderi begira posta bidezko botoa emateko aukera dago Batzokian.

Batzokia ondoko ordutegian izango da zabalik: astelehenean egubakoitzera, 11:30etik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Edozein argibidetarako 943 76 47 00 telefonora dei dezakezue.


Iraki buruzko hitzaldia astelehenean kultura etxean, Komite Internazionalistak-en eskutik

Bergarako Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, Irakeko egungo egoerari buruzko hitzaldia izango da, hilaren 17an, kultura etxean, 19:30etan. Joseba Iriondo eta Imanol Telleria Komite Internazionalistak-eko kideak jardungo dute Irakeko egoeraren gainean. Iriondo kazetari lanak egin zituen Iraken eta *Palestina hotela* liburua argitaratu du. Imanol Telleria, Iraken kontrako eraso hasi zenean Bagdaden zegoen, elkartasun brigada batean.



PEÑA ATHLETICEKOAK SAN MAMESEN EGON ZIREN

Peña Athletic Bergara lagunarteko kideak San Mamesen izan ziren aurreko domekan. Goizetik 40 bat lagun joan ziren Bilbo aldera; goizean San Mames futbol zelaia eta hango instalazioak bisitatu zituzten. Berdegunea zapaldu eta palkoan esertzeko aukera ere izan zuten, Hilario Azkargortaren argazkian ikus daitekeenez. Jarraian Deustuko Las Parrillas jatetxean bazkaldu zuten eta arratsaldean Athleticen eta Albaceteren arteko partidua ikusten egon ziren. Ez zuten lehoien garaipenarekin gozaterik izan. Hala ere, egun ederra igaro zuten, giro onean eta lagunartean. Udan denboraldi amaierako jaia egingo dute herriko Athleticzaleek. Ileeup!!!



FAROLAK DOMINGO IRALAN

Hamabi farola jarri berri dituzte Domingo Irala kalean. Kalea behar beste argizatuta ez zegoela eta, Udalak farola berriak jartzea erabaki zuen. Esandako moduan, Peñalba dendetik Hernandez bodegoira dagoen tartean 12 farola daude orain. Argi faltarik ez da izango aurrerantzean... Hain ondo argizatuta ez dauden herriko beste hainbat leku behar den moduan argizatzea ere ez legoke gaizki.



ESTITXU LOBATO 'DATE EL BOTE' SAIOAN

Estitxu Lobato bergarar gaztea ikusi dugu aste honetan ETB-2ko *Date el bote* saioan. Hala ere, ez du zorte handirik izan lehiakide bergararrak, ez baitu inolako saririk jaso. Dena den, gainerako lehiakideekin eta Carlos Sobera saioko aurkezlearekin primeran moldatu dela esan digu Estitxuk. Joan den apirilaren 18an grabatu zituzten aste honetan eman dituzten bost saioak. Gaur, egubakoitza, emititu den azkenekoan finalera iritsi da Estitxu baina Idoia lehiakide bizkaitarrak eraman du 84.000 euro inguruko botea. Irabazleak saioko bere lagunak Martin Berasategi jatetxera gonbidatuko ditu bazkaltzera, ekainaren 12an. On egin!!!

MINGAINARITIRAKA



Jose Angel Moraza

ARABA BIDAIK- EKO GIDARIA

Arratsaldeko hiruretan egin dugu hitzordua Jose Angelekin, ikastetxe aurrean. Umeak eskolan laga berri zituen; izan ere, Araba Bidaiak enpresako autobus gidaria dugu Jose Angel, eta umeak eskolara eramaten ibiltzen da.

Noiztik zabilta autobuseko gidari?

Iazko irailean hasi nintzen; aurrez, kamioiko gidari ibili nintzen hiru urtez.

Zer duzu nahiago, kamioia edo autobusa?

Autobusa; kamioian ordu mordo bat pasatzen nituen lanean eta penintsula osoan ibiltzen nintzen. Autobusean, berriz, hemen inguruan ibiltzen naizenez, egunero etxean bazkaltzen dut eta ordutegi ona daukat.

Batez ere, umeak eskolara eramaten egiten duzu lan. Ondo konpontzen zara umeekin?

Bai, oso ondo; dena dela, eskerrak zaintzaile bat ere ibiltzen denari autobusean, bestela...

Gainerakoan, zelako bidaiak egiten dituzu?

Asteburuetan, futbol taldeak partidura eramaten ditut; horretaz gain, ezkontzetarako, sagardotegietara joateko eta horrelakoetarako ere deitzen digute.

Zelatan erabaki zenuen autobuseko gidabaimena ateratzea?

Orain dela hamaika urte langabezian geratu nintzen eta aitak animatu ninduen gidabaimena ateratzera; ordaindu ere berak egin zidan.

Pazientzia handia beharko da autobusean egun osoan hara eta hona ibiltzeko, ezta?

Bai, horixe; bai errepidean ibiltzeko eta askotan, baita, bidaiariekin ere.

Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna?

Umeekin ibiltzea; Osintxukoekin, adibidez, oso tratu ona daukat. Eurak hartzen ditut lehenengo, eta aurrean eserita etortzen dira denak. Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin.

Eta gutxien?

Asteburuetan lan egin behar izatea.

Real zalea zarela esan dit txoritxo batek. Aurten sufrituko zenuen, ezta?

Bada, bai; dena dela, ez da mailaz jaitsiko, behintzat.

Ametz bat?

Loteria tokatzea.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Kristina Elkoro

HEGO AFRIKA / 2002ko abenduan

Bergaran bizi den Hegoafrikako lagun baten bitartez joan ginen hara; Shandy da bera, eta 2002an hilabete batzuk pasatzera joan zen Hego Afrikara. Han zegoela bisitatzera joateko esaten zigun; azkenean, lagun bat eta biok animatu eta Hego Afrikara abiatu ginen. Aukera paregabea iruditu zitzaigun Hego Afrikako bertako batekin hiru aste pasatzea.

Bidaia bera nahiko gogorra izan zen, oso luzea egin zitzaigun: Bilbon hegazkina hartu eta Madrilera joan ginen; handik, Londresera: Londrestik Johannesburgora eta handik ekialdera, hantxe bizi da eta Shandyren familia.

Hiru bat egun pasatu genituen Shandyren familiaren etxean; granja baten bizi dira, mendian, kolonial erako etxe baten. Nahiko isolatuta bizi dira, eta errepideak ere eskasak dira; mendiko autoan joan behar da. Gertuen dagoen granja lau bat kilometrorra dago, eta herria 20 bat minutura.

Tokia zoragarria da; lautada zabalak daude inguru hartan, baina, baita mendixkak ere. Zuhaitz askorik ez dago, baina, toki oso berdea da.

Shandyren familiarekin pasatu genituen Gabonak, eta Hego Afrika ezagutzera abiatu ginen gero. Furgoneta bat hartu eta Ciudad del Cabo edo Cape



“Oraindik ere banaketa handia dago gizartean, beltzen eta zurien artean”

“Cape Town oso hiri ederra da; hiriaren erdian mendixka bat dago eta hiria urez inguratuta dago”

Town aldera abiatu ginen; bidean, hainbat toki ikusi genuen.

Barrualdean, paisaia ikusgarriak daude, dokumentaletan ikusten ditugun modukoak; tximinoak, jirafak, elefanteak... denetik ikusi genuen. Argazki rally bat ere egin genuen parke natural baten.

Kostaldean ere egon ginen; Hego Afrikak bi itsaso dauzka, atlantikoa eta indikoa. Oso polita da kostaldea, baina, barrualdea bereziagoa da.

Azkenean, Cape Townera iritsi ginen. Oso hiri ederra eta berezia da. Hiriaren erdian mendixka bat dago eta hiria urez inguratuta dago; alde baten, indikoa eta bestean atlantikoa dauzka. Benetan ederra da Cape Town.

Asko harritu gintuena izan zen beltzen eta zurien arteko ezberdintasunak ikustea. Guk uste genuen egoera askoz hobeto egongo zela; urte asko dira beltzak gobernuaudela, baina, oraindik ere banaketa handia nabari da gizartean.

Hala ere, ikusten da, pixkanaka-pixkanaka, hobera doala beltzen egoera. Kontuan hartu behar da horrelako aldaketak ezin direla egun batetik bestera eman. Dena dela, gogorra egin zitzaigun egoera ez dela hain ona ikustea.

AINTZANE IRIZAR



Kristina txundituta geratu zen Hego Afrikako paisaiekin.

IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

PILOTA

Ander Muguruza final-laurdenetan Bergara Hiria Txapelketatik kanpo geratu da

Finalerdietara pasatu den Bergarako pilotari bakarra Igor Gutierrez da eta datorren martitzenean jokatu du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergara Hiria Pilota Txapelketako azken final-laurdenak jokatu ziren martitzenean. Nagusietan Ander Muguruza bergararrak Bengoetxearekin bikotea osatuz Erroizenea eta Argoteren aurka jardun zuen, eta partidua galduta txapelketatik kanpo geratu da.

Martitzenean, maiatzaren 11n, bi pilota partidu izan ziren Udal Pilotalekuan, biak Bergara Hiria Txapelketakoak.

Lehenengo 22 urtez azpiko bi bikotek jardun zuten. Bellosok eta Galarragak Lizarra eta Orbegozoren aurka jokatu zuten partidua eta lehenengoak nagusitu zirenk, 22-9. Bi bikoteen arteko alde nabarmena izan zen jokoa eta Lizarra eta Orbegozo ezinean ibili ziren norgehiagoka osoan. Partiduan mailarik onena erakutsi zuen pilotaria Beloso izan zen, baina Galarraga bikotekidearen laguntza ezinbestekoa izan zuen azkenean irabazteko.

Hauen ostean, nagusien txanda izan zen. Ander Muguruza bergararrak Bengoetxearekin Erroizenea eta Argoteren aurka jokatu zuen. Etxean jardun arren, ez zuen bere mailarik onena eman eta bikotekideak ere, minez zegoenez, ez zion jokoa askorik lagundu.



Muguruzak ez zuen bere maila eman eta Bengoetxea bikotekideak minez zegoela jokatu zuen partidua.

du. Lan zaila izan zuten eta amaieran Erroizenea eta Argote nagusitu ziren, 22-10.

FINALERDIAK

Datozen bi martitzenetan, maiatzaren 18an eta 25ean jokatu

dira Bergara Hiria Txapelketaren IX. edizioko finalerdiak.

Maiatzaren 18an, 19:30ean hasita, 22 urtez azpikoen mailan Olazabalek eta Beteluk osatutako bikoteak Asperen eta Errarteren kontra jardungo du.

Reyes Azkoitia antolatzaileak esan digunez, "maila bertsua dute pilotariak eta partidua nahiko borrokatua izango den ustea daut. Olazabalek airez oso joko polita du. Baina Aspek eta Errarterek, Debagoienekoak izanik, ia

etxean jokatzeko dute. Beraz, azkenaldian eskuetako arazoren bat izan duen arren, eskuak gertu izanez gero, kantxa ezagunean jokatzea abantaila ere izan daiteke euren dako".

Maila honetan bigarren finalerdiak Etxeberria eta Iza bizkaitarrek Beloso eta Galarragaren aurka jokatu dute maiatzaren 25ean. Azkoitiak esan digunez, "Iza oso pilotari elegantea da, baina final-laurdenetan Bellosok eta Galarragak erakutsi duten jokoa ikusita ez dago esaterik zeinek duen partidua irabazteko aukera gehien".

Txapelketan aurrera jarraituko duen Bergarako pilotari bakarra Igor Gutierrez da. Huizirekin bikotea osatuz, uberarrak datorren martitzenean, hilaren 18an, jokatu du Arantzeta eta Jauregiren kontra. "Huizirik eta Gutierrezek badute esperientzia txapelketan, orain dela bi urte txapelidun izan baitziren. Beste bikoteak berriz lehen urtea du. Beraz, aukera gehiago dute Igorrek eta Huizirik finalera iristeko", esan digu Reyes Azkoitiak.

Maiatzaren 25ean, berriz, Lasak eta Mendizabalek Erroizenea eta Argoteren aurka jokatu dute beste finalerdiak. Azken hauek faborito modura jokatu dute, baina beste Lasa-Mendizabal bikoteak ere txapelketa ona egiten dihardu.

Kadete mailako mutilek eta neskek Arrate taldekoen aurka jokatu dute eskubaloian asteburuan

I.A.

Zapatuan eta domekan jokatu dira asteburu honetan eskubaloia partidua Labegarrietako kiroldegian. Kadete eta nagusi mailako mutilek eta kadete mailako neskek jardungo dute.

Zapatuan kadete mailakoek hasiko dute eskubaloia jardunaldia 17:45ean. Arrate talde eibartarraren aurka jokatu dute Xabier Lijoren mutilek.

Joan den astean gazte mailakoek Arrateren aurka erakutsitako joko ona azaldu nahi luke kadete mailakoek ere.

Izan ere, gazte mailakoek joan zen aste bukaeran Arrateren aurka irabazi ostean, asteburu honetan Arrasaten jokatu dute eta hurrengoan etxean Aloña Mendiren kontra. Partidu bakarra irabaztea nahikoa dute denbo-

raldia sailkapeneko lehen tokian amaitzeko. Taldea oso ongi dabil defentsan eta fisikoki ere indartsu daudela erakutsi dute, beraz, baliteke gazte bergararrak euren mailako txapelidun izatea.

Nagusi mailako mutilek ere zapatuan izango dute partidua 19:15ean. Bergarakoek Ereintza taldearen kontra jokatu dute.

NESKAK DOMEKAN

Bestalde, kadete mailako neskek, mutilek bezalaxe, eibartarrak izango dituzte aurrez aurre Labegarrietan. Bergara eta Arrateren aurkako partidua domekan izango da 12:15ean.

Kadete mailako neskek maila egokia erakusten dihardute eta sailkapeneko lehen postuetan amaituko dute denboraldia.

Gainontzeko taldeek kopako partidua jokatzeko dihardute eta datorren urterako prestakuntza modura hartu dituzte partidua.



Kadete mailako neskek maila egokia erakutsi dute orain arte eta sailkapeneko lehen postuetan daude.

Preferente mailako taldeak Mondraren kontrako derbia jokatuko du bihar, zapatua, Agorrosinen

I.A.

Bergara Kirol Elkarteko lau futbol taldek jokatuko dituzte partiduak asteburuan etxean. Norgehiagokarik esanguratsuena preferente mailako mutilek Mondraren aurka jokatuko duten derbia da.

Asteburu honetako futbol jardunaldia bihar, zapatua, 17:00etan hasiko da Agorrosinen. Asteburuko partidu garrantzitsuena izango da jokoan. Bergarako taldeak Mondraren kontrako derbia jokatuko du.

Bergararrak baino lasaiago egongo dira Arrasatekoak. Izan ere, Mondrakoek mailari eutsiko diotela ia segurua da, baina Bergarak bi puntu behar ditu mailari eusteko. Beraz, garrantzitsua da joko ona egin eta partidua irabaztea.

Juanina Garai Bergarako entrenatzaileak esan digunez, "Arrasaten joaneko partidua guk irabazi genuen; beraz, Mondrakoak errebantxa bila etorriko dira. Hala ere, gu irabazteko gozoz irtingo gara zelaira".

Azkenaldian ez dute golik sartu Juanina Garaiaren mutilek, baina zapatuan aurkariaren atezaina gainditzen saiatuko dira. "Deban



Juanina Garaiaren mutilek Arrasaten joaneko partiduan egin zuten bezalaxe, Mondrari irabazten saiatuko dira.

azken jardunaldian golik sartu ez bagenuen ere, partidu ona egin genuen. Taldeak elkartuta jokatzen badu, irabazi egin dezakegu", esan digu Garaik.

Zapatuan jokatuko den beste norgehiagoka erregional mailakoena da. Ilintxa izango dute aurrez aurre eta partidua 19:00etan hasiko da

ERREGIONAL MAILAKOAK ETA NESKAK
Domekan, beste bi partidu jokatuko dituzte bergararrek. 11:30ean, ohorezko mailako gazteek Kostkas taldearen kontra jardungo dute Ipintzan.

Arratsaldean, nesken zortzi-ko taldeak Zarauzko jokalariek izango ditu aurkari, 16:30ean Ipintzan hasiko den norgehiagokan.

Bestalde, Bergara Kirol Elkartetik jakinarazi dute domekan 10:00etan alebinendako probak egingo dituztela. 1993an jaio eta futboleko jarduten dutenei dei egin nahi diete probetan parte hartzeko. Partidatxo bat jokatuko dute seguru aski, eta taldeko koordinatzaileak eta entrenatzaileak egingo dute aukeraketa.

ARTXIBOA

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ariznoako neskak bikain Gipuzkoako Txapelketan

Joan zen zapatuan, goizez eta arratsaldean jokatuko zen Ibarako kiroldegian Gipuzkoako Gimnasia Erritmiko Txapelketa. Ariznoa taldeko gimnastak bertan izan ziren, eta ez zuten nolana hiko maila erakutsi, gainera. Horrela, alebin mailan, Lide eta Usoa Toledok lehenengo eta bigarren postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren; Jurdana Pildain laugarren izan zen eta Ainara Amoros seigarren. Taldeka, berriz, lehenengo tokian sailkatu ziren. Kadete mailakoak ere lehenengo izan ziren taldeka, eta bakarka podiumeko hiru tokiak bete zituzten, hurrenez hurren, Irati Arteagak, Sarai Gallegok eta Eider Carrascok. Gazteen A mailan, Uxue Arregi izan zen lehenengo eta Maialen Toledo bigarren. B mailan, berriz, lehenengo Virginia Odriozola izan zen, bigarren Maialen Legorburu, Iratiz Gastiain laugarren eta bosgarren Izargi Vega. Gazteen mailan, gainontzekoetan bezalaxe, Ariznoako neskek lehenengo postua eskuratu zuten taldeka egin beharreko proba amaitu ostean.

Junior eta kadete mailetako mutilen saskibaloia partiduak zapatuan

I.A.

Joan zen asteburuan etxetik kanpo jokatuko ostean, Bergaran izango dituzte partiduak herriko saskibaloia jokalariek. Zapatuan hiru norgehiagoka ikusteko aukera egongo da Labegaraietan: junior mailakoa bat eta kadete mailakoenak besteak.

Bihar, zapatua, eguerdian, kadete mailako bi saskibaloia taldeek jokatuko dute, 12:00etan hasita, Labegaraietako kiroldegian, Lacorrekoek eta Aranetakoek.

Aranetako mutilek Gros Xake taldekoak izango dituzte aurrez aurre; Lacor taldekoek, aldiz, Donostiako Easo C taldekoen kontra jardungo dute.

Bi partiduak irabaztea zaila izango dela aurreikusitako dute talde hauetako arduradunek. Beraz, bergararrek lanak izango dituzte aurkariaren aurrean.

Hala ere, bi taldeen artean Araneta da irabazteko aukera handien duena. Izan ere, Lacor taldeak baino joko hobea erakusten dihardu denboraldi honetan kadete mailan.

Kadete mailakoei, zapatukoaren ostean beste bi jardunaldi baino ez zaizkie faltako aurten-



ARTXIBOA

Aranetako mutilek Gros Xake taldea izango dute aurrez aurre zapatuan.

go denboraldia amaitzeko. Lacorreko Ordiziaren eta Aloña Mendiren aurka jokatuko du; eta Aranetak, berriz, Easo B eta Calderria Zaher taldeak izango ditu aurrez aurre.

JUNIOR MAILAKOAK ARRATSALDEZ

Bestalde, junior mailako mutilek arratsaldean jokatuko dute, haiek ere Labegaraietan. Euren partidua 16:00etan hasiko da, eta Aloña Mendi taldeko oñatiarrak izango dituzte aurkari.

Maila bertsua dute Lacorreko eta Aloña Mendik, baina bergararrek izan dezakete partidua irabazteko aukerarik. Izan ere, azken sei norgehiagokak jarraian irabazi dituzte. Gainera, kontuan hartu behar da Bergarako taldekoak aurkariak baino gazteagoak direla.

Zapatuko partidua jokatuta, datorren astean denboraldiko azken norgehiagoka jokatuko dute junior mailako mutilek Zarauzko taldearen kontra.

Domekan jokatuko dira Areto futboleko finalerdiak

I.A.

Lagunak Kirol Elkartek antolatutako Areto Futbol Txapelketa amaierara heltzeaz da. Domekan, hilaren 16an, txapelketako play-offeko finalerdiak izango dira jokoan Labegaraietako kiroldegian.

Mongatxurra taldeak Errotagainen kontra jokatuko du 19:00etan; Bedarreta eta A Ze Flaxa taldeen arteko norgehiagoka, berriz, 20:00etan hasiko da.

Antolatzaileek esan digutenez, play-offeko partiduetarako ez dago faborito argirik.

Domekako partiduak irabazten dituzten bi taldeek finala jokatuko dute. Oraindik erabaki gabe dago finala noiz izango den. Izan ere, talde batzuek play-offetan ez ezik kopan ere badihardute, eta ezin dute egun berean jokatuko.

Beraz, sailkatutakoak kopan ez badaude finalak datorren asteburuan jokatuko dira eta beste la hurrengoan.

Kopako finalerdiak, berriz, datorren asteburuan jokatuko dituzte, eta antolatzaileek esan digutenez, Mongatxurra eta A Ze Flaxa taldeak dira kopa txapelketa irabazteko faboritoak.



ARTXIBOA

Domeka arratsaldean jokatuko dira finalerdietako bi partiduak.



**Makina
Erremintaren
Institutua**

Instituto de
Máquina
Herramienta

INFORMAZIOA:

Makina Erremintaren Institutua

Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 4132.

Faxa: 943 74 41 53

Posta elektronikoa: nekane@imh.es

www.imh.es

Eusko Jauriaritzako
Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.



Izena emateko epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne

2004-2005 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

BERRIA

- Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektro-mekanikoa

ATE IREKIAK

maiatzaren 20an eta ekainaren 3an, 19:00etan



GREMIOEN GIDA zure etxearen osasun onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

- Iturgintza
- Akreditazioa: gas ontziratua
- Galdaren mantentzea

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atekak





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 20. alia

IEPA LAGUNOK!

Aillegau da lehiaketiaren eguna! Holako egunetan ni baiño zoriontsuago ez da iñor izaten. Zela gustatzen jaten erregaluak banatzia!!

Gogoratu, erantzun-orrixa martitzen goizerako zuen ikastetxe-ko idazkaritzan laga bihar dozuela.



URREZKO ARAUAK

- Ez zaittut ezagutu.
- Ni baiño azkarragua zara.



- ~~Ez dotsut ezagutu~~
- ~~Nere baiño azkarragua zara.~~



BETE HUTSUNIAK

Bete hutsuniak hurrengo aukerekin:

A. Ezetz asmau

B. Bestela

D. Garenez

E. Ia

F. Eta

G. Hau da

H. Zittuala



1.- aurten uda ona daukagun

2.- Gure taldekuak haiek dira,..... kamiseta gorrixa dauzkenak.

3.- igarkizun hauek!

4.- Lagundu lorak ureztatzen, berandutu egingo jaku.


5.- Mirenek esan zeban berak ekarriko oparixak.

6.- Hemen, kotxian zaittugu etxera.

7.- Ez zaittut ezagutu.....!



LIBURU GOMENDIUA



Sorgina eta maisua, honezkero bi edo hiru aldiz irakurri dot. Liburua sorgiña baten kontakizuna da. Egun batian eskolara juaten da ikasliak txanpain botilla bihurtzera. Eskolan maisua ezagutzen dau eta sorgiña egunero juaten da ipuiñak entzutera. Maisuaz maitemintzen da eta azkenian ezkondu egitten dira. Neretzat oso politta da eta nik gomendatzen dotsuet oso dibertigarrixa dalako.

Izenburua: Sorgina eta Maisua
Egileak: Mariasun Landa eta Jokin Mitxelena



UXUE LAZKANO DOBAO
San Martin Agirre
herri eskola, 3. maila.
8 urte

ZAHARRAK BERRI/ Omendutako 42 lagunek plaka oroigarri bana jasoko dute, zaharren egoitzan ospatuko den ekitaldian

Aurten 87 urte egingo dituzten bergararrak omenduko dituzte maiatzaren 23an

EDU MENDIBIL

Aurten 87 urte egingo dituzten bergararren omenezko ospakizun ekitaldia izango da maiatzaren 23an, erretiratuen egoitzan. 42 lagun omenduko dituzte egun horretan. Ohikoa denez, Udaleko eta San Joxepeko ordezkariak izango dira omenaldian.

Maiatzaren 23ko ospakizun ekitaldiak 10:30ean hasiko dira, ordu horretan Santa Marina parrokiaren izango den mezarekin. Ondoren, eguerdiko 12etan omendutakoek harrera egingo zaie erretiratuen egoitzan. Besteak beste, Victoriano Gallastegi alkateak eta San Joxepeko zuzendaritzako kideek hartuko dute parte. Esan bezala, aurten 42 lagun dira 87 urte egingo dituztenak. Hauxe duzue omenaldia jasoko dutenen zerrenda: Maria Albizu, Ramona Aranguren, Maria Argialde, Angeles Arizmendi, Jose Martin Arraigo, Eugenia Arrieta, Benita Baquedano, Maria Concepcion Zilardegi, Markos Kortabarria,

Maria Rosa Etxaniz, Margarita Elortza, Julia Gallastegi, Irene Gantxegi, Jose Gardoki, Simon Garitano, Maria del Carmen Goenaga, Antonio Gonzalez, Victor Herran, Bernardo Iñarra, Dolores Iñarra, Roman Igarza, Nieves Imaz, Antonia Irazabalbeitia, Martina Larrañaga, Ciriaca Larrañaga, Salvadora Larrañaga, Eugenia Lazpiur, Benita Leturiaga, Juan Lopez, Juana Milikua, Cristina Mujika, Julia Pagaldai, Marcelina Pildain, Pedro Plazaola, Victoria Senar, Adelaida Soria, Maria Dolores Ugalde, Maria Ugarte, Petra Uribarri, Odys Esperanza Viñas, Josefa Ignacia Zabalala eta Martin Zabaleta.

ABESBATZAREN SAIOA ETA LUNCHA

Horren harira, aurten 87 urte beteko dituzten herritar guztiak dagoeneko jaso dute omenaldirako gonbidapena. Omendutako guztiak plaka oroigarri bana jasoko dute datorren maiatzaren 23ko omenaldian. San Joxepeko abesbatzak ere hartuko du parte omenaldian, eta jarraian omendutakoek eta euren familiartekoei luntxa eskainiko zaie.



San Joxepeko abesbatzak ere hartuko du parte omenaldian. Argazkian, abesbatzako kideak iazko ekainean, San Antonion.



Udaberriko Jaia datorren egunean

Udaberriko Jaia ospatuko dute erretiratuen egoitzan datorren egunean, maiatzaren 20an. Oraindik ere udaberriki eguraldi onik ekarri ez digun arren, San Joxepeko lagunek jaia izango dute egunean, arratsaldean. Lagunartean merienda egingo dute eta jarraian Iñaki Quintanilla ezagunarekin dantzaldia izango da erretiratuen egoitzan. Girorik ez da falta izango. San Joxepeko zuzendaritzak dei egiten die elkarteko bazkideei eguneko jaiaren parte hartzeko.

LABUR

Donostiara eta Oriora irteera maiatzaren 27an

Erretiratuek egindako mendi irteeren programarekin jarraituz, hurrengo mendi irteera maiatzaren 27an egingo dute, Donostia, Igeldo eta Oriora. Autobusa 09:15ean aterako da Ibargaraiko geltokitik. Bazkaria, berriz, Orioko Hondartza jatetxean egingo dute.

Izenematea erretiratuen egoitzako harrera gelan egin daiteke, hilaren 25era arte. Edozein argibidetarako 943 76 30 09 telefono zenbakira jo dezakezue.



EL CARMEN
GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

ANTZERKIA/ Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko VII. Mostra izango da maiatzaren 20tik 23ra bitartean

Nazioarteko txotxongiloak Bergaran bisitari

EDU MENDIBIL

Txina, Italia, Argentina, Katalunia, Andaluzia, Alemania eta beste hainbat herritako txotxongilo ikuskizunak izango dira hilaren 20tik 23ra Bergaran, Helduentzako Txotxongiloen Mostraren VII. aldian.

Mostraren inaugurazio ekitaldia eguenean, hilaren 20an, izango da, Komenio kalean, 20:00etan. Besteak beste, Txalapartariak taldea izango da bertan, lau eguneko programazioari hasiera emanez.

Hamar ikuskizun izango dira, eta ikusleek aukera zabala izango dute. Esate baterako, gure artean ezaguna den El Chonchon talde argentinarrak *Trespinas* ekarriko du oraingoan, pailazoak, hippyak eta tango-zaleak irudimenezko bidaia zentzugabean nahastuz. Txinatik, berriz, Yangzhouko Txotxongiloen Teatroa etorriko da. Tradizio handiko taldea da, eta aspaldiko dantza, tigreen eta heroiaren arteko borroka eta xingolen erakustaldia egin-

go dute. Pizzicato argentinarrak, berriz, hainbat esketzez osatutako *A todo trapo* eskainiko dute, umorea eta erotismoa uztartuta. Eta Chapertons talde katalana izango da Mostrako izarretako bat: munduan zehar arrakasta itzela izan duen *Boom* lanarekin etorriko dira. Irudimenez jositako lana da. Kataluniatik ere *Medusa* etorriko zaigu, zuzeneko musikarekin lagunduta Mediterraneoko itsasoari eskainitako omenaldia. Andaluziako Desguace taldeak genesiaren gaineko ikuspegi bitxia landu du *El hermano mellizo de Dios* lanean. Heartbeat hitzik gabeko lan poetikoa da eta *El anillo de los ancianos* aktore bakar batek landutako ikuskizun gutiz originala da. Txotxongiloen erabilerari buruzko *Possessed* lanak emango dio amaiera Mostrari.

ARGAZKI ERAKUSKETA POL-POLEN

Bestalde, Mostrak iraungo duen lau egunetan, Jesús Atienzaren *Hariak, ametsak eta itzalak* argazki erakusketa izango da ikusgai Pol-Poleko erakustaretoan.



ARTXIBOA

Italiako Pizzicato taldeak *A todo trapo* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 22an, gaztetxean.

Mostraren egitaraua, egunez egun

EGUENA 20

22:00: *Trespinas*, El Chonchon (Argentina). Gaztetxea.

EGUBAKOITZA 21

20:00: *Boom*, Chapertons Comic Theatre (Katalunia). Novedades aretoa.

21:30: *Medusa*, Camaleo (Katalunia). Kaleko ikuskizuna.

23:00: *El hermano mellizo de Dios*, Desguace (Andaluzia). Gaztetxea.

ZAPATUA 22

12:30: *El anillo de los ancianos*, Teatro Wynfyd (Alemania). San Martin plaza.

17:00: *El anillo de los ancianos*. Angiozar.

18:30: *Circo discolo*, En la lona (Argentina/Euskal Herria). San Martin plazan.

20:00: Jangzhouko Txotxongiloen Teatroa (Txina). Novedades aretoa.

23:00: *A todo trapo*, Pizzicato (Argentina). Gaztetxea.

DOMEKA 23

12:30: *El anillo de los ancianos*, Teatro Wynfyd (Alemania). Osintxu.

18:30: *El anillo de los ancianos*. Espoloia.

20:00: *Heartbet*, Claudio Cinelli (Italia). Novedades.

23:00: *Possessed*, 5 Sesiones Teatro (Argentina). Gaztetxea.



JESUS ATIENZA

Pol-Poleko erakustaretoan ikusgai izango den argazkietako bat.



Txapa jaia zapatuan

Txapa jaia ospatuko dute bihar, zapatua. Arratsaldean, 18:00etatik aurrera, azoka alternatiboa zabalduko dute gaztetxean: diskoak, fanzineak edo liburuxkak eskuratzeko aukera izango da. Gauean, berriz, Criatura (Zaragoza) eta Respira (Laudio) taldeekin kontzertua egongo da, 22:30ean hasita. Bestalde, Txapa Irratiak Txotxongilo Mostraren gaineko jarraipena egingo du datorren astean. Irratiaren gaineko informazioa, www.txapairratia.tk web orrian.

LABUR

Gaztetxeak Astindu fanzinearen web orria martxan jarri du: www.astindu.org

Bergarako gaztetxeak Astindu fanzinearen www.astindu.org web orria martxan jarri du. Atal ezberdinetan sailkatuta, Astindu fanzinean landutako erreportajeak, elkarrizketak eta bestelakoak azaltzen dira aipatutako web orrian. Besteak beste, Bodegoi eta Boots & Destroi taldeei egindako elkarrizketak irakurgai dituzue.

Gaztetxeo kideek datorren ekainaren 16an egingo dute web orriaren aurkezpena, prentsa aurrean.

Matias Azkarateren margolanak Nahikarin eta Ramon Arantzabalen erakusketa Oñatin

Matias Azkarateren margolan erakusketa zabaldu zuten aurreko astean Nahikari tabernan. Erretiratu ondoren hasi zen Azkarate margolaritzan, eta azken bi urteotan Rikardo Azkargortarekin ari da, pinturan sakontzen. Nahikariko erakusketan, nagusiki, paisaiak eta natura hilak zintzilikatu ditu.

Bestalde, Ramon Arantzabalen erakusketa Oñatiko kultura etxean dago ikusgai domekara arte, 18:30etik 20:30era.



BERGARA
Maika Gallastegi
Maiatzaren 14an, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander Asula
Maiatzaren 14an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Sara Arietaleaniz
Maiatzaren 11n, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
lagunak Maitane eta Josu.



BERGARA
Maite Elorza
Maiatzaren 14an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Josu.



BERGARA
Josu Gorriti
Maiatzaren 18an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak, bereziki
Josu, Ziortza eta Endika.



BERGARA
Iker Gorriti
Maiatzaren 18an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak, bereziki
Iker, Ziortza eta Endika.



BERGARA
Julen Santamaria
Maiatzaren 11n, 16 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
ahizpa Amaia.



BERGARA
Saioa Garin
Maiatzaren 16an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Lierni Azkarate
Maiatzaren 15ean, urtebete.
Zorionak! Gurasoak eta
ahizpa Naiararen partez.



BERGARA
Tamara Zafra
Maiatzaren 20an, 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpak.



BERGARA
Karmele Uribesalgo
Maiatzaren 19an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
batez ere Beñat.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Patxi Larrañaga
Maiatzaren 17an.
Etxekoak, zorionak eta
jarraitu horrela!



BERGARA
Joseba Larrañaga
Maiatzaren 21ean.
Etxekoak, zorionak eta
jarraitu horrela!



BERGARA
Asier Ziarsolo
Maiatzaren 20an.
Zorionak! Ugarrivako
familian partez.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-oso jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



PROFESIONAL *liberalen* GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Iraila 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko maiatzaren 14a / 201. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02



laz Aramaion ospatu zuten Joko Tradizionalen Topaketa.

ARTXIBOA

Joko Tradizionalen III. Topaketa, eguaztenean

Goieskolak, Debagoieneko herri ikastetxeen elkarrekin, hirugarren aldiz antolatu du Joko Tradizionalen Topaketa. Aurten, Antzuola aukeratu dute horretarako. Datorren eguaztenean, maiatzak 19, izango da hori, frontoian; 10:00etan hasi eta 16:30ean amaituko dira ekitaldiak.

DEBAGOIENEN HERRI ESKOLAK

Debagoieneko herri ikastetxe edo eskola gehienetatik 170 bat neska-mutiko etorriko dira eguazte-

nean Antzuolara; honako ikastetxe hauek: Bergarako San Martin, Eskoriatzako Luis Ezeiza, Aretxabaletako Kurtzebarri, Aramaioko San Martin, eta Arrasate, Elgeta eta Antzuolako herri ikastetxeetatik; Debagoienekoekin batera, Soraluze-ko Herri Ikastetxeko ikasleak ere Antzuolan izango dira. Oñatikok, berriz, ez dute parte hartuko, egun horretan irteera egitekoak dira eta. Laugarren mailako ikasleek hartuko dute parte.

ERA GUZTIETAKO JOKOAK

Goizean, 10:00etan hasita, herri kirolak egingo dituzte, taldeka: zaku lasterketak, harri-jasotzea, soka-tira, txinga eramatea, lokotx bilteta... Bazkalostean, berriz, 14:30 aldera, hainbat txokotatik pasatuko dira taldeak, eta era guztietako jolas tradizioletan ibiltzeko aukera izango dute: kro-moetan, gomarekin, dokean, hariekin, tortolosekin, yo-yoarekin, boloetan, intxaurrekin, diabolarekin...

JAIK

San Isidro eguna ospatuko dute bihar

AINZANE IRIZAR

Bihar, zapatua, San Isidro eguna ospatuko dute. Bi ekitaldi berezi egongo dira aurten: Nartxi Saralegi aizkolariaren omenez herri kirol erakustaldia eta Anelkaren Elkartasun Festa.

Herri kirolak frontoian izango dira, 17:15ean. Antolatzaileek Felix Berraondo zenari omenaldia egingo diote. Goenatxo, Izeta eta Ostolaza harri-jasotzaileek, eta Peñagarikano, Arrozpide, Saralegi eta Aranberri aizkolariak parte hartuko dute.


ELKARTASUN FESTA

Anelkarrek, bestalde, Elkartasun Festa antolatu du. Pintxoak saltzeko postua jarriko dute pla-

zan. Batutako dirua hiru misiolari antzuolarri laguntzeko izango da: Brasilen dagoen Juan Antonio Lizarralderi, errota bat egiteko; Ana Mari Iturberi, Ekuadorreko indigenei laguntzeko; eta Maria Antonia Etxezarretari, Uruguayko emakumeen heziketa bultzatzeko.

GOIZEAN, AZOKA

Goizean, berriz, 09:00etatik 14:00etara, artisau eta ganadu azoka izango dugu. Era guztietako produktuak izango ditugu: xaboiak, bastoiak, lore lehorrak, txirulak, pilotak...; 10:30ean, Trekutx elkartearen salda banatuko dute; 11:00etan, meza; 12:00etan, txistulariek kalejira egingo dute; eta 12:30ean, trikitilariek.



Aizkolariak eta harri-jasotzaileak izango ditugu frontoian, San Isidro egunean.

ARTXIBOA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

**Zoruen kutxilatuta
eta
bernizatzea**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

**Apainketarako eta
industriarako pinturak**

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ELKARRIZKETA

ITZIAR ALBERDI/BADIHARDUGU ELKARTEKO AHOZKO ONDAREA JASOTZEKO ARDURADUNA

“XX. mende hasieran jaio zirenengandik garai hartako kontuak jaso nahi ditugu”

Badihardugu elkarte Antzuolako ahozko ondarea jasotzen hasiko da laster. Helburu horrekin, adineko hainbat herritar elkarrizketatuko dituzte. Itziar Alberdi eibartarra da lan horren arduraduna.

Noiz hasiko zarete lanean?

Laster hasiko gara, datorren astean elkarrizketak egiten hasiteko moduan egongo garela espero dut. Herriko adineko hainbat lagun elkarrizketatuko ditugu. Dena dela, aurrez ere eginda zeuden hainbat grabazio eta horiek ere sailkatuko ditugu; hainbat proiektutarako egin izan dira Antzuolan grabazio horiek: euskara elkarteak egindakoak badaude, bertako euskara jasotzeko egindako ikerketetarako...

Zein da zuen helburua?

Guk nahi duguna da historia txikiak jasotzea; dokumentuetan eta artxiboetan jasotzen ez den historia jasotzea da gure helburua. Artxiboetan datu mordoa topatu dezakezu, baina, ez duzu topatuko benetan garai hartako bizimodua zelakoa zen: garai hori bizi izan zutenen esperientziak, bizimoduak, ohiturak, lan

egiteko moduak, pentsaerak ez dituzu jasotzen. Guk nahi duguna da XX. mende hasieran jaio ziren herritarrengandik ahoz jasotzea eurek bizi izandako sasoi hura.

Hori guztia, gainera, bertako euskalkian jasotzea da zuen beste helburua, ezta?

Bai, baina, guk ez dugu planteatzen lan filologiko bat egitea; guk istorioak jasoko ditugu eta istorio horiek bertako euskalkian jasoko ditugu, gainera. Hori, noski, oso aberasgarria izango da; azken baten, ez dituzu kontaktuzun batzuk bakarrik jasotzen, baizik eta modu konkretu baten jasotzen dituzu, bertako euskalkian, alegia.

Ondare hitza erabiltzean, badirudi galtzen doan zerbaiten gainean berba egiten dugula. Hala da? Ahozko ondare hori galtzen doa?

Bai, neurri handi baten, bai; askotan, ondare hitza gauza fisiko batekin lotzen dugu, monumentu eta eraikinekin; horri garrantzia handia ematen zaio eta babestu behar direla uste dugu eta hala da; oso kontzientziatuta gauden, gaur egun, gai horrekin. Ahozko ondarearen kasuan, orain lan hau egiten ez bada, protagonistak doazenean, daukaten altxor hori



KONTUOLA

eurekin batera joango da. Horren gainean ere kontzientzia hartu behar dugu.

Jasotako horrekin zer egingo duzue?

Euskarri digitalean jasotzen dugu guztia; gero, jasotakoa sail-

katu egiten dugu. Lan hori guztia Udalaren esku geratuko da. Guk nahi duguna da, gero, edozein herritarrek material hori erabiltzeko aukera izatea: interesa duen edozein herritarrek, kazetariok, ikasleek, ikerlariek...

KIROLA

Gazte mailako taldeak finala jokatu du

AINTZANE IRIZAR

Aurreko asteburuko partiduen ondoren, bere taldeko lidergoa ziurtatu zuen gazte mailako futbol taldeak. Gauzak horrela, datorren asteko asteburuan, kopako finala jokatu dute antzuolarrek, beste taldeko liderraren aurka, Amara Berri taldearen aurka, hain justu.

Igoera faserako ezin izan zen sailkatu Antzuola Kirol Elkarteke gazte mailako taldea; baina, kopan oso ondo ibili dira, eta euren taldean, lehenengo postuan geratu dira. Alde nabarmenarekin, gainera. 28 puntu dituzte oraingoz, eta 21 besterik ez ditu bigarren taldeak, Axularrek. Gainera, 44 gol sartu dituzte kopan antzuolarrek, eta bigarren gera-

tu direnek, 30 besterik ez. Gauzak horrela, aurreko asteburuan erabakita geratu zen Antzuola izango dela bigarren mailako gazte mailako finala jokatu duena. Amara Berriren aurka jokatu du, maiatzaren 23an.

ERREGIONALEK BUKATU DUTE

Erregional mailako taldeak, berriz, aurreko asteburuan buka-

tu zuen denboraldia. Ez zion bate-re amaiera txukuna eman denboraldiari: 10 eta 1 galdu zuen Landexaren aurka. Seigarren tokian geratu dira, 10 punturekin. Kopan jokatu dituzten 14 partiduetatik bi irabazi, 8 galdu eta 4 berdindu dituzte. Neskek ere agur esan diote denboraldiari; azkeneko partidua, Urkiren aurka, 1 eta 0 galdu zuten.

Gimnastak Gipuzkoako txapelkun

Aurreko asteburuan Ibarren jokatu zen Gipuzkoako Gimnasia Erritmiko Txapelketan. Alebin mailan, taldekako txapela irabazi zuten. Banaka, berriz, Lide Toledok irabazi zuen; Gazteen mailan, berriz, Uxue Arregik irabazi zuen. Horrela, Euskadiko txapelketarako sailkatu dira guztiak.

Berraondok bihar, zapatua, jokatu du finala

Bihar, zapatua, jokatu du Aritz Berraondok bigarren mailako eskuz banakako txapelketako finala. Txapelketa irabazten badu, lehen mailara igoko da. Orain dela bi aste Iñigo Leitzari 22 eta 17 irabazita sailkatu zen finalerako. Galartza V.aren aurka lehia-tuko da, Labrit pilotalekuan.

Trenaren gaineko erakusketa datozen bi asteburuetan

Atzo, eguena, zabaldu zuten Durango-Zumarraga trenbidearen gaineko erakusketa. Juanjo Olaizolaren hitzaldia ere atzo izan zen. Datozen bi asteburuetan egongo da zabalik erakusketa. Trenarekin lotutako hainbat material egongo da ikusgai: argazkiak, dokumentuak, planoak, treneko txartelak...

Herritarren Zerrendak 121 sinadura batu ditu

Europar Batasuneko hauteskundeetarako aurkeztu ahal izateko, 15.000 sinadura batu behar zituen Herritarren Zerrendak. Antzuolan 121 sinadura batu dituzte; Debagoienean, 2.380; eta Hego Euskal Herrian, berriz, 49.000.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko maiatzaren 14a / 185. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: 55475/95

Tabako saltzailearen ustezko hiltzaileak karguak ukatu ditu

USOA AGIRRE/IRATI AGIRREAZALDEGI

Astelehenean hasi zen, Donostiako Justizia Jauregian, Aitor Mendikuteraren aurkako epaiketa, Arrate Elkoro Elgetako tabako dendako jabearen ustezko hiltzailea. Aste guztian lekukoek deklaratu dute, eta datorren astelehenera arte iraungo du epaiketak.

Donostiako Justizia Jauregian epaitzen dihardute Aitor Mendikute. 2002ko maiatzaren 9an Arrate Elkoro, Elgetako tabako saltzailea, labankadaz hiltzea eta lapurretan egitea egozten diote.

Elgetako Udalak eta hildakoren familiak ipini dute salaketa eta 30 urteko kartzela zigorra eskatu dute. Fiskalak, berriz, 25 urtekoa.

Astelehenean hasi zen epaiketa zinpeko epaimahaia osatuz, eta martitzenetik aurrera lekukoek testigutza eman dute.

Aitor Mendikute ustezko hiltzaileak astelehenean esan zuenez, egun hartan tabakoa erosi eta dendatik irten zen.

Defentsako abokatuak ere akusatua errugabetasuna aldarrikatu du eta absolbitzeko eskatu. Horretarako, ustezko hiltzailea psikosia jeta dagoela adierazi du Jon De la Maza abokatuak.



ARTXIBOA

Arrate Elkoroaren hilketak salatuzko kale agerraldia egin zuten Elgetan orain dela bi urte.

LEKUKOAK

Martitzenean bederatzi lekukok eman zuten euren testigantza. Arrate Elkoroaren alargunak eta bi alabek hitz egin zuten lehengo eta hirurek azpimarratu zuten herrian Aitor Mendikuteri jendeak zion beldurra.

Arrate Elkoroaren bi lagunek ere hitz egin zuten martitzenean, baita Hotel Elgetako hiru kidek

ere. Izan ere, Arrate Elkoro bertara joan zen zaurituta. Udaleko langile batek ere kontatu zuen egun hartan gertatutakoa.

Eguaztenean hiru herritarrek, bi gizarte langilek eta Martuteneko kartzelako medikuak eman zuten lekukotza. Azken honek Mendikuteraren aurrekari psikiatrikoak azaltzen dituen txostena aurkeztu zuen.

Eguenean ertzainek deklaratu zuten eta gaur, barikua, beste zazpi lekukok.

Datorren astelehenean auzitegiko medikuak deituko dituzte deklaratzera eta peritu txostena aurkeztuko dute.

Behin epaiketa egin ostean, sententziaren zain egon beharko dute Aitor Mendikute errudun jotzen duten jakiteko.

EUSKARA

Euskaraz jolasteko txokoak izango dira bihar, zapatua, herriko ume eta gurasoendako

I.A.

Gurasoek eta haurrek elkarrekin jolas eginda harremanak sendotzen dituztela kontuan hartuta, harreman horiek euskaraz izan daitezkeen bultzatzeko asmoz, euskaraz jolasteko txokoak antolatu dituzte bihar arratsalderako. Jolasak kiroldegiko kantxan izango dira.

Seme-alabekin zein hizkuntzatan jolasten den erabakitzea garrantzitsua da, umeen eta gurasoen arteko harremana sendotu eta hobetu egiten delako.

Horrela, seme alabekin euskaraz jolasteak umeek hizkuntzarekiko hartuko duten jarrera baldintzatuko du, konturatu gabe lagunekin edo eguneroko egoeretan euskara erabiltzera ohituz.

Hori dela eta, Elgetan euskaraz jolasteko txokoak antolatu dituzte biharko, zapatarako. Jolasen jaia 19:00etan hasiko da kiroldegiko kantxan.

Ohiko jolasetan jardungo dute jaian parte hartzen dutenek: globoak apurtzen, zaku lasterketan, errelebuak arropa zintzilikatzen, intxaurren jolasa, txingoka, soka saltoka, potian-potian...

Baina izango da berezitasunik: gurasoek eta seme-alabek elkarrekin jolastu beharko dute. 2 eta 3 urtekoendako jolasgune berezia egongo da eta hauek aukien jolasa, korro jolasak, harripaketa jolasak... egingo dituzte.

Jaia modu egokian amaitzeko, familia bakoitzak etxetik ekarritakoarekin afari-merienda egingo dute partaideek.

LABUR

Aurten ez da danborradarik izango jaietan

Azken hiru urteotan, jaietako ekitaldi nagusienetako bat danborrada izan da. Aurten, ordea, Jai batzordeak danborradarik ez egiteko erabakia hartu du. Herritar askok hartu izan du parte danborrak zein barririk jotzen eta baita bestelakoetan laguntzen ere. Ba aurten etenaldia egingo dute eta ez da danbor soilurik entzungo kaleetan. Hala ere, Jai batzordetik esan digutenez, eten hau ez da betiko izango, eta baliteke datozen urteetan berriz ere antolatzea.

Erretiratuak zuzendaritzarako jende faltan

Joan zen zapatuan egin zuten Erretiratuaren Elkartekoek urteko batzarra. Bertan, zuzendaritzako kide batek taldea uzteko erabakia azaldu zuen. Migel Elkoro da, hain zuzen ere, zuzendaritza utziko duena, eta orain artean egin dituen lanak Juan Erosarbak egingo ditu hemendik aurrera. Baina ardura hau behin-behinekoa izatea nahi dute. Horretarako, beste norbaitek hartu behar luke Elkorok lagatuko postua, eta jendearen laguntza eskatu dute.

Asentzio Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Datorren maiatzaren 23an ospatuko da aurtengo Asentzio Eguna. Gazte Asanbladak hasiak dira antolaketa lanetan eta jadanik bazkaritarako txartelak salgai ipini dituzte. Entsalada mistoa, solomoa piperrekin, postrea eta kafea izango dituzte mahai gainean bazkarirako izena ematen dutenek. Txartelak hartzeko azken eguna maiatzaren 20a, eguna, izango da. Hamar euroren truke eskuratu ahal izango dira Haizea tabernan edo gaztetxean.

ELKARRIZKETA

GILLERMO CASTAÑOS/ARDO DASTAKETA IKASTAROKO IRAKASLEA

“Ardoa dastatzen ikastean, ardoari berari dagokion balioa ematen zaio”

B iokimikako irakaslea da Guillermo Castaños, baina ardoa egiten hainbat urtean jardun ostean, orain ardoak nola dastatu irakasten du. Elgetan emango du aurki ikastaroa eta ardoaren gainean egin dugu berba berarekin.

Zer erakutsiko duzu ardo dastaketa ikastaroan?

Ardo dastaketa egiteko oinarriko kontzeptuak erakutsiko ditut lehenengo: ikusmena, usaimena eta dastamena. Baita ardo bakoitza nola egiten den ere. Ondoren, Euskal Herriko, Aragoiko, Gaztelako eta Ekialdeko ardoen gaineko azalpenak emango ditut. Lehenengo saioan ardo bakoitzaren ezaugarriak nola antzeman erakutsiko diet.

Zertarako balio du ardo dastatzen jakiteak?

Ardo baloratzen ikasten da, baina jendeak ez dio aparteko erabilerarik ematen hori jakiteari. Ardo dastatzaile on batek zer behar luke?

Gogoa izatea. Edonork dasta ditzake ardoak, baina entrenamenduarekin hobetzen da horren gaineko jakituria.

Saio praktikoak izango dira?


Lehenengo egunean usaimen txapelketa egingo dugu. Edalontzietan ardo mota ezberdinak atera eta saiatu beharko dugu zein ardo den asmatzen. Gainontzean, azalpen teorikoak eman ondoren praktikak egingo ditugu.

Nola dago ardo kultura Euskal Herrian?

Jendeak beti edan izan du ardoa, baina beharbada ez daki ongi edaten. Gehienetan Errioxako ardo edan arren, jendeak bati beste ardo mota batzuk probatzeko eta honen gainean gauzak ikasteko gogoa.

Ardo neurrian edanez gero ona dela diote. Baina zein da neurri egokia?

Alkohola ezagutzen den pozo handienetakoa izan daitekeela



ARTXIBOA

“Jendeak gehienetan Errioxako ardo edan arren, badi beste ardo batzuk probatzeko gogoa”

diote, baina era berean badiu minbiziaren aurkako osagaiak. Bakoitzak ikusi behar du zein den bere neurria. Egunean bi kopatxo hartuta ez da ezer gertatzen. Gainera, zenbat eta ardo hobea izan, orduan eta kalte txikiagoa egingo digu.

“Zenbat eta ardo hobea edan, orduan eta kalte txikiagoa egingo digu”

Jatordu on bati laguntzeko ardo bat?

Jatekoaren arabera bata edo bestea hartuko nuke. Gainera, zenbat eta ardo gehiago ezagutu aukera ere zabalagoa da. Hala ere, ardo bakoitzak bere momentua duela esango nuke.

HEZKUNTZA

Laster zabalik haur eskolako izenematea

I.A.

Datorren irailean, ikasturte berriarekin batera, dira zabaltzekoak Elgetan haur eskola. Hori dela eta, maiatzaren 17tik aurrera umeak bertan matrikulatzeko aukera egongo da. Horretarako gurasoek udaletxera jo beharko dute.

Irailean irekiko ditu ateak 0 eta 2 urte arteko umeendako haur eskolak. Gehienez hamar ume egon ahal izango dira bertan, eta hiru nahikoa dira haur eskola zabaldu ahal izateko.


Baina guztira zenbat izango diren jakitea komeni denez, matrikulazio epea aurki zabalduko dute. Gurasoek maiatzaren 17tik aurrera joan beharko dute udaletxera izena ematera.

Behin izena eman ostean, gurasoak irakasleekin elkartuko dira ordutegia eta egutegia finantzatzeko. Izan ere, haurrek legez ezingo dute zortzi ordutik gora eskolan pasa.

JATORDUAK

Ordutegia, dena dela, 9:30etik 11:30era ekintza hezitzaileak egingo dituzte, eta gainontzean bertan umeak zaintzeaz arduratuko dira. Haurrek eskolan jan ahal izango dute gurasoek etxetik eramandako janaria, irakasleek berotu eta eman egingo baitiete.

Ordaindu beharreko kuotei dagokienez, bi aukera izango dira: haur eskolan bost ordutik behera egiten dituztenendako bat (135 euro) eta bost ordutik gorakoendako bestea (180 euro). Kuotak hilabeteka ordaindu beharko dituzte gurasoek.



I.A.

Herri Eskolan egongo da 0 eta 2 urte bitartekoen behin-behineko gela.

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

PARTIDUAK

Maiatzak 15
15:00: Txapela-Arriñiketan Vicios
16:00: Vicios-Spias Arriñiketan
17:00: LA Kokotxa-K.Piperrak Spias

EMAITZAK

Maiatzak 8
La Kokotxa 2-Txapela 1
Makanaki 1-Spias 0 (Ez aurkeztua)
Komando Piperrak 0-Vicios 1

BOLATOKI

Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz

Artikale 2, ELGETA. 943 76 82 84

BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Lagunak
frontoi zahar
parean

Frontoi zaharraren parean ateratako argazkia da honako hau. Gaur egun, zelala berde dago eta saskibaloian jokatzeko bi saski daude neskak agertzen diren tokian. Gainera, berdegune hori hesiz inguratuta dago, eta eskolako umeez bertan jolasten dute maiz, bai saskibaloian zein bestelako jolasetan. Izan ere, eskola aldamenean dago frontoi zaharra.

Argazkian ez agertu arren, frontoi zaharra Domingo Iturbe eraikinean dago, eta eraikin honetan mendi museoa egiteko asmoa du Udalak. Hala ere, denbora luzez orain dagoen moduan geratuko da inguru hori, seguru aski; eraikuntza lanak egin artean bai, behintzat. Gerora ere, beharbada, berdegunea dagoenetan utziko dute.

Argazkian dotore asko agertzen direnak lagun talde bereko neskak dira. Hotza egiten zuen, antza, erretratua atera zuten egunean, hala dirudi argazkiko neskek berokiak soinean dituztela ikusita. Batzuek txapela ere jantzita daramate.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak, goian ezkerretik eskumara: Mari Carmen Arantzeta, Mari Conchi Gorrotxategi, Mari Carmen Larrañaga, Maria Isabel Arantzeta, Maribel Agirre eta Maite Zabalondo.

Makurtuta, berriz: Marisol Alberdi, Milagros Royo eta Jesusita Iturricastillo.

Argazkia: Maria Asun Agirre.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da 1966an Zubieta kalean sortu zuten elkarte honen izena?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|--|
| <p>1.
Zein da Aritzeko San Migel ermitaren ondoan dagoen baserria?</p> <p>A/ Zuburruti.
B/ Oianguren.
C/ Aritzeta.</p> | <p>2.
Zein da Gutierrez pilotariaren bikotea Bergara Hiria txapelketan?</p> <p>A/ Huizi.
B/ Beloso.
C/ Galarraga.</p> | <p>3.
Txotxongilo Nazioarteko Mostraren zenbagarren ekitaldia da aurtengoa?</p> <p>A/ Laugarrena.
B/ Seigarrena.
C/ Zazpigarrena.</p> |
|---|--|--|



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MAITANE MURUAMENDIARAZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maitane!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Angiozar / Galde debalde: *1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Gallo pasta

500 g.

0,68 €

113 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUA

Ignazio Irala Aumategi

KOLDO PEREIRA

Jaunaren mirabea Napoliko Erresumako frantziskotar oinutsen San Pedro Alcantarako kustiadiako lehen kimua izan zen. Pedro Irala eta Maria Aumategiren semea, Bergaran jaio zen 1653an. Itsas armadako kapitain jeneral batek 12-14 urte bitarteko lau euskaldun eskatu zituen Napolitik, morroi lanetarako, eta haietako bat izan zen Irala. Napolin, bere apaltasun handiagatik nabarmendu zen. Egiten zuen guztia, espirituz edo gorputzez, Andre Mariaren gloriari eskaintzen zion.

Mundutik erretiratu eta Napoliko frantziskotar oinutsen komentuan sartu zen, frai Jose de Jesus Maria izenaz. Komentukoek asko maite zuten bere dohain ugariengatik: gogoz ikasten zuen, eta liluratuta zeuzkan denak, aurrerapen izugarriak lortzen zituelako. Gaixorik zegoela, Grumoko Santa Katalinaren komentura eraman zuten, Napolitik gertu. Iralaren gaixotasuna larriagotu egin zen, ordea, eta *Misericordias Domini in eternum cantabo, Gloria Patri et Filio* esan ondoren, 1672an hil zen, 19 urterekin. Bedeinkatua izan zen, ez baitzuen inoiz bekatu larririk egin.

Napoliko frantziskotar oinutsen komentuan sartu zen gaztetan




Napolin fraide egon zen Ignazio Irala.

ARDATZA
Brikolajea

- | | |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini |
| Horma-armairuak | Era guztietako moldurak |
| Sarriailak | Apalak |
| Heldulekuak | Kaxoiak |

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



JANTZIDENDAK ETA KIROLDENDAK

Bergara Piel. Espaloia 6
 Cristina. Arruriaga 44
 Gallastegi. San Pedro 15
 Ikus-Bi. Irala 5
 Jauja kirolenda. Irizar 3
 Laket. Barrenkalea 35
 Mujika jostundegia. San Martin plaza
 Subijai. Irizar 1
 Zatoia. Barrenkalea 4
 Zubikua. Barrenkalea 24



OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5
 Aldasoro. Espaloia 4
 Carmen Garate. Bidekurutzeta 15
 Egizabal. Bidekurutzeta 13
 Galarreta. Irizar 2
 Lazkano. Barrenkalea 15
 Lonbide. Bidekurutzeta 5
 Retegi. San Pedro 18



**BURDINDEGIAK-
BRIKOLAKETA
LOREAK ETA
PENTSUAK**

Ardatza brikolaketa. Masterreka 4
 Gaztelu burdindegia. Mintegi 1
 Gisasola burdindegia. San Pedro 8
 Lislore loredegia. Barrenkalea 28
 Mujika burdindegia. Bidekurutzeta 8
 Narbaiza pentsuak. Masterreka 22



**Tratu zuzenagoa, segurtasuna,
konfiantza eta gertuan dauzkazu!**

Bergara, zure zentru komertziala

HARATEGIAK

Igarza J.J. Irizar 3
 Imaz S. Aranerreka 1
 Leturia J.L. Artekalea 5
 Leturia J.M. San Pedro 24
 Rezola L.M. Matxiategi 7
 Urzelai P. Ibargarai 7



**PAPERDENDAK-
TINDATEGIAK-
BESTE**

Elkar fotokopiadenda. Artekalea 1
 Barcelo bidaiak. Zurradero 4
 TGB aholkularitza. Matxiategi 36
 Jolas. Barrenkalea 27
 Marcó. Bidekurutzeta 44
 Onena tindategia. Barrenkalea 29
 Renteri tindategia. Ikerleku 4



ELEKTRAGAILUAK

Biltoki. Barrenkalea 6
 Herran. Matxiategi 3
 Jakina. Amillaga 10
 Radio Bergara. San Pedro 25
 Santos RTV. Masterreka 2



PERFUMERIAK

Camacho. Bidekurutzeta 24
 Egiluz. Irizar 3
 Goiara. Irala 3
 Igaro. Barrenkalea 35



**OPTIKAK-
BITXITEGIAK-
ARGAZKIAK**

Argazki. Barrenkalea 16
 Etxeberria. Bidekurutzeta 16
 Kiñu. Barrenkalea 35
 Manso optika. Irizar 2



OSTALARITZA

Arrano. Kruz Gallastegi 5
 Azpeitxi. Aranerreka 13
 Canalejas. San Antonio 6
 Erreki. Fraiskozuri 3
 Euskalduna. Osintxu
 Gaspar. Barrenkalea 31
 Guria. Bidekurutzeta 5
 Lasa. Ozaeta jauregia
 Maxim's. Simon Arrieta 5
 Miner banatzailea. Matxiategi 23
 Pol-Pol. Komenio kalea 11
 Sirimiri. Barrenkalea 3
 Zabala. Ibarra 14
 Zumelaga. San Antonio 5



OIHALAK

Anezka. Espaloia 8
 Artazi. Katabia z/g
 Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13
 Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14
 Fernandez. Ibargarai 2
 Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3
 Maher. Bidekurutzeta 29



**MERTZERIAK-
LENTZERIAK**

Gantxegi. Aranzadi 2
 Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6
 Igarza. Irala 5
 Itziar. Matxiategi 1
 Juana elgetarra. Zubieta 28
 Mirari. Martoko 32
 Nerea. Simon Arrieta 1
 Phildar. Irala 5



JANARIDENDAK

Goxo-Toki gozotegia. Irala 3
 Hurbil dietetika. Aranzadi 2
 Itxas Eder arraindegia. Mintegia 5
 Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6
 Larrañaga gozotegia. San Pedro 9
 Mujika gozotegia. Artekalea 3
 Txukun. Fraiskozuri 6
 Zapaterikua. Joan XXIII.a plaza.



**ALTZARIAK,
DEKORAZIOA**

Biltoki. San Martin plaza 2
 Edertu. Barrenkalea 23
 Guridi. Artekalea 8
 Kanela. Espaloia 10

